**URAREN EUSKAL AGENTZIAREN ETA AZTI FUNDAZIOAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN LUZAPENA, LANKIDETZA-HITZARMEN HORREN XEDEA DA AZTERLAN BAT EGITEA, MUTRIKU INGURUKO KONTSERBA-INDUSTRIEN ISURIAK UDAL HUA-N INTEGRATU AHAL IZANGO LIRATEKEEN JAKITE ALDERA.**

**PRÓRROGA DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA Y LA FUNDACIÓN AZTI PARA LA REALIZACIÓN DE UN ESTUDIO DE FACTIBILIDAD DE LA INTEGRACIÓN DE LOS VERTIDOS DE LAS CONSERVERAS DE LA ZONA DE MUTRIKU EN LA EDAR MUNICIPAL.**

Gasteizen, 2022ko azaroaren 7an.

En Vitoria-Gasteiz, a 7 de noviembre de 2022.

**ELKARTU DIRA**

Antonio Aiz Salazar jauna, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusia, eta Rogelio Pozo Carro jauna, AZTI Fundazioko zuzendaria.

**REUNIDOS**

El Sr. D. Antonio Aiz Salazar, Director General de la Agencia Vasca del Agua y el Sr. D. Rogelio Pozo Carro, Director de la Fundación AZTI.

**ESKU HARTU DUTE**

Lehenengoak Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusi gisa eta Agentziaren Estatutuen 7.2.g) artikuluak ematen dion eskuduntzaren arabera.

Bigarrenak, AZTI Fundazioaren izenean eta haren ordezkari gisa, Donostiako notario

**INTERVIENEN**

El primero de ellos en su calidad de Director General de la Agencia Vasca del Agua y en virtud de la atribución que le confiere el artículo 7.2.g) de los Estatutos de la Agencia.

El segundo, en nombre y representación de la Fundación AZTI, en virtud de escritura de

Manuel Fernando Cánovas Sánchez jaunaren aurrean 2022ko uztailaren 15ean emandako ahalorde- eta ahalorde-errebokazioko eskrituraren arabera (protokolo-zenbakia: 1991).

Revocación de Poder y Poder otorgada ante el Notario de Donostia-San Sebastián, D. Manuel Fernando Cánovas Sánchez el 15 de julio de 2022, con el número 1991 de protocolo.

Bi alderdiek luzapen-akordio hau emateko legezko gaitasun nahikoa eta beharrezkoa aitortzen diote elkarri, eta, horretarako, honako hau

Ambos intervinientes se reconocen mutuamente capacidad legal suficiente y necesaria para otorgar el presente acuerdo de prórroga, y a tal efecto

## ADIERAZTEN DUTE

**LEHENENGOA.-** 2020ko azaroaren 9an, lankidetza-hitzarmena sinatu zen Uraren Euskal Agentziaren eta AZTI Fundazioaren artean, "AZTERLAN BAT EGITEKO MUTRIKU INGURUKO KONTSERBA-INDUSTRIEN ISURIAK UDAL HUA-N INTEGRATU AHAL IZANGO LIORATEKEEN JAKITE ALDERA".

**BIGARRENA.-** Azterlana, hasiera batean, 4 fasetan egitea planteatu zen, 2020. eta 2021. Urteetan zehar egiteko aurreikuspenarekin:

- 1. fasea: Mutrikuko ingurunearen egoeraren azterketa.
- 2. fasea: Mutriku aldeko kontserba-jardueraren azterketa.

## EXPONEN

**PRIMERO.-** El 9 de noviembre de 2020 se firmó el convenio de colaboración entre la Agencia Vasca del Agua y la Fundación AZTI para el desarrollo del "ESTUDIO DE FACTIBILIDAD DE LA INTEGRACIÓN DE LOS VERTIDOS DE LAS CONSERVERAS DE LA ZONA DE MUTRIKU EN LA EDAR MUNICIPAL".

**SEGUNDO.-** El estudio se planteó inicialmente en 4 fases con la previsión de acometerlas a lo largo de los años 2020 y 2021:

- Fase 1: Análisis de situación del entorno de Mutriku.
- Fase 2: Estudio de actividad conservera en la zona de Mutriku.

- 3. fasea: hainbat agertokitan jarduteko proposamena.
- 4. fasea: jarduera-proposamena.

- Fase 3: Propuesta de actuación en los diferentes escenarios.
- Fase 4: Propuesta de actuación.

**HIRUGARRENA.-** Lehen hiru faseak amaitu ziren, eta azken faseari ekin zitzaion, hau da, inplikatutako alderdi guztiekin (Uraren Euskal Agentzia, Gipuzkoako Ur Kontsortzioa, Mutrikuko Udala eta Mijoako kontserba-enpresak) kontraste-mahai bat antolatzeari, azterlanaren emaitzak azaltzeko eta aztertutako agertoki bakoitzaren argudioak eta/edo eragozpenak azaltzeko.

**TERCERO.-** Las tres primeras fases ya han sido completadas, quedando pendiente la última fase, que consiste en organizar una mesa de contraste con todas las partes implicadas (Agencia Vasca del Agua, Consorcio de Aguas de Gipuzkoa, Ayuntamiento de Mutriku y empresas conserveras de Mijoa), con el fin de exponer los resultados del estudio, así como debatir los argumentos y/o inconvenientes de cada uno de los escenarios estudiados.

**LAUGARRENA.-** 2021eko abenduan burutuko zen azken bilera horri buruzko alderdi guztiak prestatzen lan egin zen, baina plangintza eta zehaztasun handiagoa behar zuten alderdi batzuk antzeman zirenez bilera arrakastatsua izateko eta alderdi guztiek konpromisoak sinatuko zituztela ziurtatzeko, ezin zen aurreikusitako datan amaitu. Horregatik, lankidetza-hitzarmenaren eranskinean jasotako kronograma aldatzea erabaki zen, lanak 2022ko ekainera arte luzatuz.

**CUARTO.-** Durante diciembre de 2021 se trabajó en la preparación de todos los aspectos relativos a esta reunión final, pero se detectaron una serie de aspectos que requerían de mayor planificación y detalle para asegurar el éxito de la misma y la firma de compromisos por todas las partes. Por ello, se modificó el cronograma de trabajos anexo al convenio, alargando los hasta junio de 2022.

**BOSGARRENA.-** AZTIk orain arte egindako lanak ondorioztatzen du HUAk arazorik gabe trata ditzakeela Mijoaren emari eta karga

**QUINTO.-** El trabajo realizado por AZTI hasta el momento concluye que la EDAR puede tratar sin problemas los caudales y cargas

kutsatzaileak. Hala ere, arazo nagusia saneamendu-sarearen edukieran datza, unitarioa eta azpidimentsionatua baita; beraz, kolektoreek ez dute emari gehiagorik onartzen.

contaminantes de Mijoa. No obstante, se ha detectado que el problema fundamental radica en la capacidad de la red de saneamiento, que es unitaria y está infradimensionada, por lo cual, los colectores no admiten más caudal.

Beraz, kontserba-fabriketako isurketen integrazioa lotuta dago saneamendu-sarearekiko konexioaren arazoa konpontzearekin; horretarako, Uraren Euskal Agentziak Mijoako saneamendua Mutrikuko HUArekin lotzeko diseinuaren eta eraikuntzaren proiektua lizitatuko du datozen hilabeteetan.

Por lo tanto, la integración de los vertidos de las conserveras está ligada a la resolución del problema de la conexión con la red de saneamiento, para lo que la Agencia Vasca del Agua licitará en los próximos meses el Proyecto de diseño y construcción de la conexión del saneamiento de Mijoa con la EDAR de Mutriku.

**SEIGARRENA.-** Aurretik azaldutakoa kontuan hartuta, eta hitzarmenaren indarraldia laster amaituko dela kontuan hartuta, hamargarren klausula aplikatuz, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49.h) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, egokitzat jotzen da luzapena egitea hitzarmenean jasotako helburu guztiak betetzeko.

**SEXTO.-** Teniendo en cuenta lo anteriormente expuesto, y que el plazo de vigencia del convenio finalizará próximamente, en aplicación de la cláusula décima y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 49.h) de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, se considera adecuada una prórroga para el cumplimiento de todos los objetivos recogidos en el mismo.

Horregatik guztiagatik, aldeek

Por todo ello, las partes

URAREN EUSKAL AGENTZIA | AGENCIA VASCA DEL AGUA

AZTI
MEMBER OF BASQUE RESEARCH & TECHNOLOGY ALLIANCE

## ADOSTU DUTE

2020ko azaroaren 9an sinatutako hitzarmen hau beste bi urtez luzatzea, 2024ko azaroaren 9ra arte, saneamendurako irtenbidearen azterketak eta proposatutako konponbideak egungo problematikaren aldagai guztiak kontuan har ditzan eta arazoari arrakasta-berme handiagoz aurre egin dakion. Epea luzatzeak ez dakar hitzarmenera bideratutako aurrekontua handitzea.

Eta azaldutako guztiarekin ados daudela adierazteko, eta dagozkion ondorioetarako jasota gera dadin, alderdiek luzapen-akordio honen bi ale sinatu dituzte, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

## ACUERDAN

Prorrogar el presente convenio, suscrito el 9 de noviembre de 2020, por dos años más, hasta el 9 de noviembre de 2024, de forma que avance el estudio de la solución al saneamiento y la solución propuesta tenga en cuenta todas las variables de la problemática actual y se aborde el problema con mayor garantía de éxito. Esta ampliación de plazo no supone un incremento del presupuesto destinado al convenio.

Y en prueba de conformidad con todo lo anteriormente expuesto, y para que conste a los efectos oportunos, las partes firman el presente acuerdo de prórroga por duplicado ejemplar, en el lugar y fecha señalados en el encabezamiento.

***URAREN EUSKAL AGENTZIAREN ZUZENDARI NAGUSIA* / EL DIRECTOR GENERAL DE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA**

ZUZENDARI NAGUSIA
ura
ur agentzia
agencia vasca del agua
DIRECTOR GENERAL

**ANTONIO AIZ SALAZAR**

***AZTI FUNDAZIOKO ZUZENDARIA* / EL DIRECTOR DE LA FUNDACIÓN AZTI**

AZTI
MEMBER OF BASQUE RESEARCH & TECHNOLOGY ALLIANCE

**ROGELIO POZO CARRO**